

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



2018-12-07 / 588. ZENBAKIA / 14. URTEA

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA AIURRI.EUS TOKIKOM

Euskararen aldeko Udal adierazpenak

Andoingo eta Urrietako udaletxeetan euskararen aldeko adierazpen instituzionalak onartu zituzten, Euskaraldiarekin eta Euskararen nazioarteko egunarekin bat eginez / 2-3



Aspanogiren aldeko kontzertu solidarioa abenduaren 9an Basteron, herriko musikarien eskutik / 7



Errefusa biltzeko edukiontzi grisa landagunera zabalduko da Urrietan, 2019ko hasieran / 10

ttape

Arnasguneak euskararentzat: Euskaraldiatik Durangoko Azokara

/ 5-8-9



Tokikomeko Ttapek gailu mugikorretarako Azokaren gida praktikoa argitaratu du

ANTZERKIA

La correspondencia personal de FEDERICO GARCIA

LORCA

Abenduak 16, igandea

19:00. Gaztelaniaz

Sarobe AEG. 8 €

Sarrerak online eros daitezke



Urrietako udala

Antzezlan eta musika uztartuta



Mailu Arruti aktorea. AIURRI

Bakarrizketa eta musika Euskararen alde, umorea erabiliz, Mailu Arrutik bakarrizketa saioa eskaini zuen Bastero kulturgunean "Ingelesa uste baino gehiago dakigu" izenburupean. Ikusleek irri eta txalo artean jarraitu zuten emanaldia.



Talde ezberdinetako musikariak elkarrekin aritu ziren. AIURRI

Musikariak Jon Ander Belamendia, Nerea Arregi, Joxema Setien, Hodei Etxeberria, Mikel Etxegia, Koldo Gonzalez, Nahia Gorostidi, Garazi Ezama, Gerezi Jauregi, Susana Cencillo, Asier Guerrero.



Ainhoa Aiertza Euskaraldia batzordeko bozeramailea. AIURRI

Euskaraldiaren amaiera Euskaraldia batzordea udaberrian hasi zen antolaketa lanetan. Basteroko bakarrizketa saioaren eta euskararen nazioarteko egunaren hitzorduen ostean, balorazioa egiteko garaia iritsi zaie. Babes zabala jaso dute andoaindarren aldetik.



Astelehenean, abenduaren 3an, ez ohiko batzaraldia egin zuten Andoaingo udaletxean. AIURRI

Hamabigarrenean ere euskarari eustea, horixe erronka berria



Andoaingo Udalak euskararen aldeko adierazpen instituzionala aho batez onartu zuen. Pleno berean euskararen erabilera normalizatzeko plan berriari bidea eman zioten, 2022. urtera arte garatzeko asmoa dutena

Eredakzioa ANDOAIN

Euskararen nazioarteko egunak, abenduaren 3ak, Euskaraldiaren amaierarekin bat egin zuen. Egun seinalatu horretan Andoaingo Udalak ez ohiko batzaraldia antolatu zuen, helburu bikoitzarekin: Adierazpen instituzionala onartzea, eta euskara normalizatzeko erabilera plan berriari onarpena ematea.

Adierazpenean, Euskaraldian parte hartu dutenei eskertza adierazi zieten: "Zorionak eman nahi dizkiegu ezpainak eta mihiak edo belarriak euskararen

soinuari zabal-zabal irekiz parte hartu duten bi mila eta hirurehun herritarrei. Eta biziki eskerrak eman nahi dizkiegu hilabeteotan antolaketa lanaz arduratu den lantalde osoari. Orain dugun erronka aurreratu dugun horretan atzera ez egitea

"ERRONKA EUSKARALDIAREN 11 EGUNAK URTEKO 365 EGUNETARA ZABALTZEA DA"

da: Euskaraldiaren 11 egunak urteko 365 egunetara luzatea."

Erabilera plan berria martxan

Bost printzipio orokor ditu: herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea, euskara zerbitzu hizkuntza ez ezik eguneroko laneko hizkuntza izatea, euskara eguneroko jardunean normaltasunez erabiltzen den hizkuntza izatea, ahozko lan harremanetan euskara gehiago erabiltzea eta euskararen erabilera sustatzeko erabaki transbertsalak hartzea.



ESKERTZA

URNIETAKO EUSKARALDIA

Urnietako herriari esker oneko agiria

Euskalaldia amaitu den honetan, Urnietako Euskalaldiaren talde antolatzaileak eskerrik beroenak eman nahi dizkie, Urnietako herritar norbanako, talde antolatu, mota guztietako elkarte, zerbitzu, ostalari... modu batera edo bestera Euskalaldian esku hartu duten guzti-guztietan. Urnietan, Udala eta herri mugimenduak euskararen erabileraren aldeko aldarrikapenean bat egin eta, mila eta hirurehun herritarretik gora izan dira Euskalaldiarekin bat egin

duzenak; Ahobizi edo Belarriprest moduan, Euskara gure hizkuntz ondare eta gure eguneroko harremanetara eramane beharra aldarrikatuz.

Aurrerapausoa da elkarrekin eman duguna, aurrerapausoa da euskararen erabilerarekin kezkatu eta oker bideak

"AURRERAPAUSSOA DA ELKARREKIN EMAN DUGUNA, OKER BIDEAK ZUZENTZEKO BIDEAN GAUDELAKO"

zuzentzeko bidean jarri garela. Euskarak guztiok behar gaitu etorkizuna bermatzeko, euskaldunok euskara behar dugu euskaldun izateko, Urnieta herri euskaldunak eskatzen digu, orain hartu dugun konpromisoak, amaitu berri dugun Euskalaldiaren egunetatik harago, urte osoko egun bakoitzean, gure harremanetan euskarari tokia ematea. Eta hori da talde honen desioa urte amaiera honetarako, eta etorriko diren urte guztietarako.

Urnietako Udalaren adierazpena:

Bizi. Prest. Halaxe datorkigu euskara bere aurtengo Nazioarteko Egunean. Eta halaxe doa etorkizunerantz. Mingainetan, pantailetan, uhinetan bizi-bizi. Zernahitarako prest.

Etxean bizi-bizi, kalean bezala; bizi-bizi eskolako jolastokian, ikasgelan bezala; lantokian bizi-bizi, lagunarteko solasaldietan bezala; bizi-bizi osagilearenean, saltokian bezala; zuzeneko harremanetan bizi-bizi, birtualetan bezala; bizi-bizi kirolean, liburuetan edo zineman bezala.

Prest gaudelako gu, euskal herritar gehien-gehienok, hori horrela izan dadin. Prest gaudelako euskarari gure hitzen hegoak eskaintzeko, ahotik belarrira, bihotzetik bihotzera, burutik burura hegaldada dadin, samur bezain indartsu. Dakiguna dakigula, mintzatzen ez dena baita euskara eskas bakarra.

Prest gaude, eta gogotsu, euskarak gure ahoan bizi-bizi dantza egin dezan. Gogotsu gaude, eta prest, gure belarrietan atseginez onartzeko euskararen soinua. Dakiguna dakigula, entzuten ez dena baita euskara kaskar bakarra.

Prest gaudelako, eta ezin gogotsuago, euskaraz ere gero eta gehiago bizitzeko. Ingurune guztietan. Eginkizun orotan. Natural-natural. Bizi-bizi.

Euskal hiztunok horretarako egin behar dugun urratsa ez da txikia, ez erraza. Borondate aktiboa eskatzen digu. Erosokeriari izkin egitea eskatzen digu. Sakon errotutako ohiturak aldatzea eskatzen digu. Kontzientzia ahalegin sendoa eskatzen digu. Euskaraz ere herritar izateko aukera egitea eskatzen digu.

Eta eskatzen digu, batez ere, euskaldun izatetik euskaldun bizitzera doan tarte gaitzeko jokaera aktiboa. Eta etengabea.

Euskararen erabileran egin beharreko urrats erabakigarri hau zinez da gizarte-eraldaketa zabal sakona, neurri historikoa duena, gure gizartearen bilakabidean mugarri izango dena. Eta, neurri horretako aldaketa guztien antzera, adostasuna du elikagai nagusi, prestasuna eta prestutasunarekin batera.

Euskararen gizartea. Gizartearen euskara.

Adostasuna eta batasuna dira, beraz, bidea, euskarak batura behar duelako, ez kenketa; biderketa behar du, ez zatiketa.

Herri aginteak, gizarteak bere dinamika propiotik sorturiko erakundeak, herritar guztiok eta gutariko bakoitza: den-denok gara, aldi berean, euskararen erabilerara eraginkortasunez areagotzeak ezinbestekoa duen

adostasun zibil zabalaren osagai eta eragile, aldi berean garen bezala haren onuradun eta bultzatzaile, bideratzaile eta babesle.

Baina aktibotasuna, praktikotasuna, da adostasun horren osagarri nahitaezkoa. Aski ez delako, honezker, aldarrikapen hutsen linboan galtzen diren asmo arranditsuak plazaratzea. Atzean utzi behar dugulako beste inork euskararen alde egin lezakeenaren zain egotea. Lorgarria delako, erabat, euskararen erabileraz hazkunde iraunkorraren bidean jartzea, baldin eta herritar bakoitzak euskara ezpainetara eramateko bere erabaki pertsonala gauzatzen badu, hori eta ez besterik delako, azken finean, gizartearen helburu kolektiboa: aukera pertsonal ugariaren batura.

Eta egin egingo dugu. Munduari euskaraz ere helduz, euskararentzat belarria zein gogoa prest izanez, euskara ahoz zein idatziz bizi-bizi eskainiz. Euskarak eguneroko bizitza aberastu dezan; eguneroko bizitzak euskara bete dezan.

Elkarrekin. Elkarrenganako errespetu osoz, elkarrengandik adorea jasoz. Elkarri euskara eskainiz. Euskara bizi-indarrez sendogotuz. Bizi. Prest. Egunero delako euskararen aldia.

Euskararen eguna Urnietan



Egape ikastolako haurrek txapa bereziak eramane dituzte paparrean. AIURRI



San Juan plazan saio ikusgarria eskaini zuten Egape ikastolako kideek. AIURRI



Etxeberri eta San Juan plazatan Magale ikastetxeak saioak eskaini zituen. AIURRI



Jolas eta proba ezberdinak egin zituzten Etxeberri plazan. AIURRI


KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



ZABALIK

FELIPE IZAGIRRE URNIETA



Txaparik gabeko Euskaraldia

Euskararen nazioarteko egunarekin bukatu da Euskaraldia, eta, dirudienez, ospe handiz bukatu ere. Hamaika eguneko kanpaina, zeinetan adierazpenak eta ekintza sonatuak han-hemenka eman diren. Arrakasta ez zen berdina izango herri eta herrixka guztietan, baina hedabideak balorazioa egiterakoan baikor azaldu dira. Jakina, tokian tokioa izango da garrantzitsuena.

Kanpainaren helburuak ere aipatu dituzte: herritarren ohiturak aldatu, hizkuntzari dagokionean, euskara bizitzako esparru orotara zabaltu etab. Erakundeetako agintariak ere mintzo izan dira, eta, Jaurlearitzako kultur sailak esan duenez kanpaina honek

akulu izan behar du erakundeek beraiei dagozkien konpromisoak har ditzaten. Gasteizko legebiltzarrean ere egin dute world cafe moduko entsegua. Nik uste dut herritarrok zorrotz jokatu behar dugula administrazioarekin eta, hor bai, hor euskaraz egin behar dugula. Esparru hori publikoa izanik, eta Kultura sailburuak zioenez, Euskaraldiak balio izan behar du euskara sustatu eta herritarren komunikazioa bultzatzeko. Herritarren jokabideak irmoa izan behar du hor. Besterik da, harreman pertsonaletan; hemen malgutasuna, bere neurrian, beharrezkoa da hizkuntza komunikazio tresna gisa erabili nahi badugu behintzat.

Eta Kultura sailburuarekin jarraituz, Maite Artola Euskadi Irratiko esatariak elkarrizketa egin dio eta, harrituta utzi nau aipatu dituen asmo guzti horiek denak entzunda. Ez daitezela paper hutsean geratu!!!

Kontua da, ordea, kanpainak, egunak etab. egokiak direla herria mugiarazteko; baina orain dator benetako erronka: txaparik gabeko Euskaraldia hasten denean. Kanpaina bukatu ondoren, normala denez, balantzea egingo dute. Badute lana arlo guztiak aztertu eta zertan bai eta zertan ez asmatu den jakin ahal izateko. Har dezagun herri bat adibide gisa. Esaterako, ikastoletan beti izaten da arazoa haurren

gurasoak noraino mintzo ohi diren euskaraz beste ikasleen gurasoekin. Haurrak ikastolan utzi eta kafetxo hartzera joango dira. Ahobizi, entzule prest ala ezer ez. Ez baitago txaparik, ez baitago kanpainarik, ez baita euskararen egunik... Eta gaztelerara joko dute. Hondartzara doazela: haurrak jolasean auskalo zein hizkuntzatan eta gurasoak eguzkitan blai kontu kontari, baina gazteleraz. Herriko tabernara joan eta nahikoa da euskaraz ez dakien bat koadrila batean egotea erdara hutsean aritzeko. Herri horretan bada asteroko bat, guztia euskaraz: Luxu bat. Harpidedun berririk izan ote da Euskaraldiaren ondoren? Txaparik ez dagoenez, agian harpidetzak igo ez baina behera egin dutela esango

digute. Zenbatak irakurtzen duten eta zenbatak nahiz eta horretarako gai izan idazten duten. Herri horretako agintariak bai, horiek bai euskaraz egingo dizute. Jende ikasia baita. Baina zenbait herritar, txaparik ez dagoenez, hurbiltzen ote dira euskarara? Hori da kontua. Oso gustura mugitzen gara zarata erdian, jaialdietan, ospakizunetan, baina ez gara mamira iristen.

Dena den, txalotu ditzagun Euskaraldiako antolatzaileak, parte-hartzaileak eta bolondresak. Txaparik gabe, ahobizi ala entzule prest gisa, egin dezagun euskaraz eta Administrazioak eta herri agintariak bete ditzatela kanpaina honetan hartu dituzten konpromisoak. Horretan ere eskarmentu pittin bat baitugu. Eta izan gaitezen kritiko!!!

POSTONTZIA

Sinatutako gutunak argitaratzeko posta elektronikoak: andoain@aiurri.eus | urnieta@aiurri.eus

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Andoaingo eta Urnietako Euskaraldiaren jarraipena aiurri.eus webgunean

aiurri.eus/Gure_Gaiak/Euskaraldia
ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK

www.aiurri.eus

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebez ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneeetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetzak: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publicitate@aiurri.eus
Banatzaleak: Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

ALJATUAK:

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOAINGO UDALA

Urnietako Udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:

Euzko Inularrak

Gipuzkoako Foru Aldundia

ZIURTAGIRIA:

Bitkarn

BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

PROTAGONISTA

"Andoainek EH Bilduk eskaini diona baino gehiago merezi du"

MAIDER LAINEZ ANDOAINGO PSE-EE ALDERDIKO HAUTAGAIA

Jon Ander Ubeda ANDOAIN
Irabaztera zoaztela adierazi zenuen aurkezpen ekitaldian...
 Ohore handia da berriro nire herrian PSE-EEko alkategai hautatua izatea. Apaltasunez eta ilusio osoz hartzen dut ardura hau. Talde sozialistarengan konfiantza izateaz gain, kalean ere jende askoren babesa eta animoak jaso ditut, eta horrek izugarritzko indarra eman dit. **Aurkezpenen hunkitu egin zinen taldekideak aipatzean. Daniel Garcia agurtu zenuen, bide batez. Uztera baitoa politikagintza.** Lantalde bikaina osatu dugu eta egin duten lan handia eskertu nien. Petri, Txoni eta ni aurrera goaz. Daniel nire lagun mina dela harro esan dezaket. Ekainetik aurrera lehenengo lerroan ez da egongo, baina jakin badakit beti nire ondoan egongo dela. **Zuena dela oposizioa egin duen alderdi bakarra, hori adierazi zenuen aurkezpen ekitaldian.** Ia hiru urtetan zehar EAJ-PNV, Ganemos eta Irabazi



Maider Lainez azaroaren 30eko aurkezpen ekitaldian. AIURRI

erabaki gehienetan gobernu taldearen alde agertu dira. Baina hauteskundeak hurbiltzen ari direnez, batzuk hasi dira kritikatzeko orain arte onartzen zituzten erabakiak eta jarrerak.

Sozialistok, berriz, legegintzaldi osoan zehar politika arduratsua eta koherentea egin dugu. Mahai gainean lan serioa eta zorrotza jarri dugu.

Ana Carrereren zikloa amaitzen ari da. Zein da PSE-EEtik egiten duzuen balorazioa?

Andoain herriak EH Bilduk azken 8 urteetan eskaini diona baino gehiago merezi duela uste dugu. Bada ordua Andoainek norabide berria hartzeko eta bere perspektibak handitzeko. Gero eta nabarmenagoa da Andoainek aldaketa behar duela, eta horregatik, sozialistok hauteskundeak irabaztera aterako gara: beste alderdien menpe geldituko bagina zer gerta litekeen badakigulako.

Maila pertsonalean, Anak aukeratzen duen ibilbidean arrakasta izatea opa diot, eta zorte ona izan dezala.

Zuen zinegotzi bat ez atxikia izatera pasa zen. Zer nolako eragina izan du horrek zuengan?

Etsipen handia izan zen, baina denborak gauzak bere lekuan jarri ditu. Plenoetan bozkatu duena ikusita, argi geratu da bere ideiak sozialistekin ez zetozela bat. **Zerrendaz eta hauteskunde programaz zer aurreratu dezakezu?**

Dagoeneko egitaraua lantzen hasi gara. Hori dela eta, andoaindar guztiak gurekin parte hartzera gonbidatu nahi ditut. Zerrenda ezagutzeko, ordea, pixka bat itxaron beharko duzue.

HAU ERE BADUGU!

Durangoko Azokarako guztiz erabilgarria



Gailu mugikorretarako bereziki diseinatutako Ttap agerkariak Azokaren mapa interaktibo sartu du, gunez gunez informazioarekin eta gune bakoitzaren arduradunari ahotsa emanda. Aldizkariaren zuzendariak, Monika Belastegik, azaldu duenez, "ahalegin berezia egin nahi izan dugu Ttapen zerbaki berezi hau Azoka bisitatu nahi dutenentzako tresna praktikoa izateko". Helburu hori gogoan, aldizkariaren zatirik handiena. Gainera, azken asteotan aldizkaritik pasatu diren hainbat kolaboratzaile eta elkarrizketaturen liburu eta disko gomendioak ere jaso ditu aldizkariak bideo formatuan. Belastegiren hitzetan, "Ttapen monografiko honekin GPS moduko bat egin dugu, Azokan galduta ez ibiltzeko, ez fisikoki ezta liburu, film edo disko aukeraketari dagokionez ere". Ttap aldizkari digitala uztailean jaio zen. Astero-astero argitaratzen da, dohainik, iOS zein Android sistemarekin dabilzan gailu mugikorretarako, eta testuzko zein ikus-entzunezko eduki interaktiboak erabiltzen ditu oinarri gisa. Eskuratzeko, doako aplikazioa deskargatu behar da Google Play zein iTunes aplikazio dendetik. Loturak: Deskarga zuzena Android eta iOS gailuetatik: <https://labur.us/ttap> Webgunea (eta zozketa!): <https://ttap.eus>

INKESTA

Ahobizi eta Belarriprest

Aiurri astekariak 49 laguneren artean iritzi biltzea egin du, Euskaraldiaren harira. Gehienak Aiurri berezian argitaratu ziren, eta besteak hurrengo egunetan. Ahobizi eta Belarriprest lanetan aritu dira guztiak, eta horietako batzuk gainera bi herrietako hamaikako kide ere izan dira. Euskaraldia ariketa kolektiboa izan da, eta askoren lekukotza aberasgarria izan da. Paperean argitara emandako iritziak sare sozialetara zabaldu dira, eta pantaila bidezko zabalpen horrek irismen handia izan du. Berezi, geroz eta hartzaile gehiago dituen Aiurriklik Instagram kontuan.



IDOIA ALKORTA
AHOBIZI

"ETXETIK HASI DUGU GURE ERRONKA: HIRU AHOBIZI ETA BELARRIPREST BAT IZAN GARA"



OIHANA GONZALEZ
AHOBIZI

"IKASTETXEKO GURASOEN ARTEAN EUSKARAZ GEHIAGO MINTZATZEN HASTEKO BALIO IZAN DIGU EUSKARALDIK"



ZORION ZUBILLAGA
AHOBIZI

"IKASTETXEKO GURASOOK TALDE GIROAN HARTU DUGU PARTE EUSKARALDIKO EKITALDIETAN"



Sandra Vieira Bono azaroko Bono Pintxo kanpaina ireki ziren txartel guztiak batera. AIURRI

“Has gaitezen erosketak herrian egiten”

SANDRA VIEIRA SALKIN MERKATARIEN ELKARTEKO DINAMIZATZAILEA

Zaila hitza behin baino gehiagotan aipatzen du, elkarrizketan zehar. Gakoa, ordea, herritarrengan dago. Andoainen bertan kontsumitzea herriari bizia ematea delako

Amaia Senperena ANDOAIN

Zer moduz joan zen duela egun gutxiko Bono Pintxo egitasmoa? Zein izan da dendarien eta tabernarien balorazioa?

Pintxo lehiaketa Salkin elkarte barruko tabernarien artean egin zen, bereziki merkataritza osta-

laritzarekin uztartzeko. Izan ere, elkarte ez baita soilik merkataritza, ostalaritza ere bada. Elkartearen negozio asko daudelako: Ileapaindegiak, asesoriak, arropa dendak, tabernak...

Epaimahaiarekin batera egon nintzen bi plazatan zehar, eta

hitz egin dudana tabernariak oso gustura daude izan zuten harre- rarekin. Jende dezente bildu zen herriko tabernetan eta eguraldi ona ere lagungarria izan zen. Kanean kanpainaren inguruan hitz egin dela ere iruditzen zait, gainera.

Salkin elkarteak ordaindu du guztia eta garrantzitsua da herritarrei hori jakinaraztea. Nire ustean, sentsibilizazio kanpainen bidetik, jendea Salkin elkarteaz gehiago hitz egiten hasi da. Garrantzitsua iruditzen zait herritarrek komertzioek eta ostalaritzak duten garrantziaz ohartzen hastea.

Pintxo lehiaketa izan zen. Nortzuk izan ziren irabazleak eta zer moduzko maila aurkitu zenuten?

Zumeatarra, Kotoi eta Ontza elkarteen botoekin, sari profesionala Hiru jatetxeak irabazi zuen. Herritarren saria, berriz, Muga tabernak.

Pintxoaren maila oso ona izan zen. Hiru urte daramatzat Salkinen, eta hau ere izan da Salkineko tabernarien artean antolatatu den lehen lehiaketa. Dena andoaindarren artean egin dugu. Andoainen, pintxoei dagokienez, maila handia dago eta tabernen lana handia izan da.

Abenduan zehar, eta Eguberri-ri begira, 50 lote zozketatu behar dituzue. Zer egin behar da parte hartzeko?

Abenduan hasi da Gabonetako kanpaina. Laster azaleratuko dugun sorpresa batez gain, dena ezberdinek produktuz betetako loteak zozketatuko dituzte, Andoain Txartelarekin erosiz gero ere, Basterorekin elkarlanean, Ikuszirkus zikloaz gozatzeko sarreraren zozketan parte hartu ahal izango da. Eta horiez gain, urtero zozketatzen dugu gabonetako apaingarria ere.

Salkinen dauden komertzio guztietako sariekin erakusleihen polit bat sortzen joan nahi dugu. Zozketan parte hartu ahal izateko, herriko komertzioetan erosi eta tabernetan kontsumitu beharko da.

Zenbat dendarik parte hartuko dute egitasmo horretan?


Andoain Txartelari dagokion zozketan, Salkinen parte diren eta datafonia duen orok parte hartu ahal izango du. Loteen eta zozketa berezien zozketan, ordea, Salkinen partaide direnak. **Iraileko kanpaina ikusgarria izan zen. Denbora pasata, nola baloratzen duzu kanpaina ikusgarri hura?**

Zaila da kanpainak izan duen zabalkundearen datu zehatza izatea, eta zaila da jendea komertzioetan erostera bultzatzea, baina guk kanpaina honekin lortu nahi genuena jendeak komertzioen inguruan hitz egitea zen, eta hori lortu dugula esan-



"Hiruland", Hiru jatetxea. SALKIN

Saritutako pintxoak



"Nevadito", Muga. SALKIN

go nuke. Jendea benetan ohartaraztea, garrantzitsua dela herriak bizirik irauteko, herriko komertzioetan kontsumitzea. **Andoaindarrei egitasmo hauetan parte hartzeko mezurik bidali nahi al diezu?**

Zaila da ohiturak aldatzea. Gaur egun Internet bidez asko erosten da, eta zaila da inguruan ditugun multinazional handiekin lehiatzea. Baina Andoainen eskaintza zabala dugu, eta ez dugu zertan kanpora atera beharrik zerbitu erostera. Ohiturak pixkanaka aldatzen hastean dago gakoa, eta erosi behar ditugun bost gauzetatik bi Andoainen erosten baditugu, aurrerapausu handia da niretzat.

Merkataritzari bizia eman behar zaio. Has gaitezen herriari bizia ematen, horixe esango nieke andoaindarrei.

"SALKINEKO MERKATARI GUZTIEN SARIKIN ERAKUSLEIHO POLITA SORTU NAHI DUGU"

Giza eskubideen urraketen txostena

Orain hiru urte Udalean sortu zen Bizikidetzaren mahai politikoak 'Memoria partekatu baterantz' izenburuko txostena aurkeztuko du. Bere edukiaren berri emateko jendaurreko ekitaldia Basteron egingo da datorren abenduaren 12an, 19:00tan

Xabier Lasa ANDOAIN

'Memoria partekatu baterantz' txostenean 1956tik 2018ra bitarte izan diren giza eskubideen urraketen eta indarkeria ekintzen inbentarioa egiten da. Halaber, 29 pertsonen -16 emakume eta 13 gizon- iritzi eta testigantzak biltzen dira bertan. Basteron egingo duten jendaurreko aurkezpena iragartzeko, Ana Carrere alkatea ordezkaritza duten alderdi politiko guztien izenean hitz egin zuen: "Txosten honekin aurrerapausu garrantzitsua eman dugula uste dugu. Gertatutako guztia aitortzeko, eta memoria kolektibo bateratzaile eta partekatuen bidean aurrera egiteko tresna baliagarria izatea nahi dugu. Modu kritiko eta autokritikoan aztertzeko, argitu gabeko gertaerak argitzeko, eta egin gabeko errekonozimenduak eta erreparazioak egiteko".

Testigantza email horien artean aniztasun handia dagoela ziur-



Hernandez (Ganemos), Mourinho (Irabazi), Izagirre (EAJ-PNV), Carrere alkatea, Lainez (PSE-EE), Zulueta (EH Bildu) eta Garcia (PSE-EE) txostena eta jendaurreko ekitaldia aurkezteko prentsaurrekoan. AIURRI

tatu du Carrerek. "Txostenean biktimak eta biktimen familiar-tekoak, udal ordezkarari izan direnak, gizarte ekimenetako eta bizikidetzaren arloko hainbat pertsonen iritziak eta lekukotzak jaso dira".

Jendaurreko aurkezpen ekitaldia Basteron

Txostena abenduaren 12an aurkeztuko dute jendaurrean, 19:00etan hasita. Giza eskubideen alde lan egiten duen Argitzuz elkarteak da txostenaren egilea.



AIURRI

1968ko uzta

50 urte bete dituzten, edo betetzear dituzten andoaindarrek ospakizuna egin zuten joan zen larunbatean. Argazkian ikusten denez, sustatzaileen deialdiak erantzun bikaina jaso zuen.

60 lagunetik gora hurbildu ziren Gaztañaga sagardotegiko bazkarira, eta ospakizuna egun osoan zehar luzatu zen. Gauean haietako asko ikus zitezkeen kalez kale.



Sukaldari taldea: Alejandro Gibello, Paco Rodriguez, Antonio Gonzalez, Pablo Portillo, Juan De la Peña, Manuel Canales. AIURRI

Extremeñoen egoitzan ohitura zaharra biziberritu zuten

Larunbatean eta igandean 'Matanza' izenez ezaguna den ohiturari eutsi zioten Andoainin

Erredakzioa ANDOAIN

Udal ordezkariek, gizarte eragileak eta Hogar Extremeño bazkideak txerri hiltzearen ospakizunaren inguruan elkartu ziren, larunbat eguerdian. 12:00etan harrera ekitaldia egin antolatu zuten, eta 14:00etatik aurrera bazkari herrikoia egin zuten. Igandean, bazkideak bazkarirako elkartu ziren berriro.

Hogar Extremeño bazkide talde bati esker eusten zaio erri-tuari. Jaioterrian ezagutu zuten ohitura indarberritu nahi izaten dute, era horretan. Osasun arauak direla-eta, txerria hiltzean hiltzen dute egun, baina gainerako prozesu guztia Hogar Extremeño elkartean egiten dute. Aurten bi txerri ekarri zituzten, eta goizean goizetik txerria zatikitzeari ekin zioten.

Bazkide taldea 1990ean hasi zen antolatzen txerri hiltzearen ekitaldia. Antonio Gonzalez su-

kaldari buruak adierazi zuenez: "Extremaduran ohikoa da, eta geuk Euskal Herrian ere berri-tu nahi izan genuen. Andoainin bizi diren Extremadurako emigranteek aurreneko egunetik egin izan diote harrera ona, eta sasoiari gauden bitartean, jarraituko dugu. Larunbateko eta igandeko bazkaritara ehundik gora pertsona etortzen dira; gastronomiak jendea bildu eta giro jatorria sortzen du, guztien arteko harremanak sakonduz. Pozgarria da guretzat, Extremaduran txerri hiltzearen inguruan gauza berbera gertatzen baita".

"OHITURAREN INGURUAN ELKARTU ETA GIRO JATORRIA SORTZEN DA"

ANTONIO GONZALEZ



Udal ordezkariek, herri eragileak eta antolatzaileak elkarrekin. AIURRI

Aukera ugari bisitariarentzat



Landako gunea, azokaren eraikin nagusia.

Gune nagusia Disko eta liburuak erosteko gune nagusia izango da, abenduaren 5ean hasi eta 9ra bitarte. Azokari lotutako espazio gehiago daude inguruan, baina horixe da nagusia. Alboan dago, besteak beste, Plateruena kafe antzokia.



Txikientzako gune egokia. Bertan hainbat aurkezpen eta saio egingo dituzte.

Saguganbara Ipuin kontaketa saioak, irakurketarako gunea, tailerrak... haurren txokoa da, berezko egitarau oparoa eskaintzen duena. Landako gune nagusiaren ondoko eraikinean dago, eta azokako egun guztietarako egitarau oparoa osatu dute.



Karpa barruan egunero-egunero zuzeneko emanaldiak, dohainik.

Musika zuzenean Azken hamarkadan Durangoko Azokari bultzada berezia eman dio zuzeneko emanaldiak eskaintzeko Ahotsenea gunek. Disko berria eskuan duten ia-ia talde guztiak zuzenean ikusteko aukera izango da.



Durangoko Azokaren aurkezpen ekitaldia. DURANGOKOAZOKA

Durango, euskal kulturagintzaren hiriburua

Liburuak eta diskoak saltzen zituzten azoka hartatik ezer gutxi geratzen da. Azken hamarkadan Durangoko Azokak eraldaketa sakona bizi du, eta indar berezia hartzen ari dira kultur jarduera ezberdinen aurkezpen ekitaldiak. Merezi du azokara bisitaldiak

Jon Ander Ubeda ANDOAIN
Antzezlanak, ikus-entzunezkoak, teknologia berriak, haurren txokoa..., euskara eta euskal kultura ardatz hartuta, Durangoko Azoka salerosketatik haratago doan esperientzia da. Abenduaren 5etik 9ra, musika eta literatura ekoizpenen artean, saio eta aurkezpen ugari gozatzeko aukera izango da.

Azokaren atal osagarrien artean Ahotsenea da ezagunena. Haien karpan zuzenekoak eta elkarrizketak eskainiko dituzte, doako sarrerarekin. Aurten, zehazki, 70 kontzertu eta 42 solaslaldi iragarri dituzte.

Haur eta familiei begira, Saguganbara gunean tailerrak eta ipuin kontaketa saioak eskainiko dituzte. Helburu zehatza dute

bertan: Ahozotasunari garrantzia ematea.

Landako Gunean, azoka klasikoan, 439 nobedade aurkeztuko dituzte 247 stand ezberdinetan: liburuak, diskoak, ipuinak eta bestelako ekoizpenak.

Euskal kulturagintzaren topagune bilakatuko da Durango, datozen egunetan. Beharrezko arnagunea euskararentzat.



Film labor berria aurkeztear da Durangon

Zinearen xarmak jota bizi da Arrate Fernandez Itsaso azken urtetan, eta hainbat film laburretan agertu da. 'Begi ninien koreografia' da bere azkeneko sormen lana, abenduaren 7an Durangoko Azokako Irudien gunean 17:30ean aurkeztuko duena

Xabier Lasa ANDOAIN

“Hamar minutu pasatxoko film laburra da. Edorta Jimenezen *Haragizko amoreak* poesia liburuan agertzen den poesia batean inspiratuta dago, eta bi pertsonen arteko maitasun musikatu kontatzen da. Amaia Fernandez eta Ander Iruretagoiena antzezleek interpretatzen dituzten pertsonaiek ez dute hitzik egiten; sentimenduak begiratuekin, keinuekin eta musikarekin adierazten dizkio- te elkarri. Hasieran txinparta hutsa dena, denboraren poderioz pasio bilakatzen da”. Maitasuna da, beraz, ardatza. Orain aurreko bere film laburraren gaiarekin bat egiten du, izan ere 2015ean aurkeztu zuen *Maddi eta Patxi* film laburrean brasildar baten eta euskaldun baten arteko harremana zuen aztergai, euskara izanik elkar- tzen zituena.

Begi ninien koreografiaren eskutik zinema, literatura eta musika batzeko ahalegina egin du. Durangoko azokan estreinatuko da, Irudien gunean, datorren abenduaren 7an arratsaldeko 17:30etatik aurrera. Egilea pozarren dago: “Pozik nago sormen lan bat egiten duzunean publikoak dastatzeko nahi izaten duzulako. Eta, noski, Durangon aurkezteak ikusgarritasuna ematen dio lanari. Ikus-entzunezkoen merkatu txiki horretan agertzeko modua izan daiteke”.

Sorkuntza hutsaren ikuspegi- tik ez ezik, euskararen eta euskal kulturaren normalkuntzatik ere zinemagintzak daukan garrantzia azpimarratu nahi du Arrate Fernandezek: “Bultzada handiagoa behar luke adminis- trazio publikoaren aldetik. Komunikazio kodeak asko aldatu dira, eta sare sozialetara eta irudiaren kulturara lotuta bizi diren belaunaldi gazteak ez dira



Arrate Fernandez andoaindarra. AIURRI

"DURANGOKO AZOKAN AURKEZTEAK IKUSGARRITASUNA EMANGO DIO LANARI"

konformatzen euskal mundutik eskaintzen zaienarekin. Hor ez dute kokatzen euren burua, eta gaztelaniaz zein ingelesez dator- kiena kontsumitzen dute. Horrek ere badu eragina euskararen erabileraren jaitzieran”.

Film laburren ekoizpen zaila

Arratek onartzen du ez dagoela erraza film laburren zabalkun- dea: “Kultur etxeetan jakinara- zi dut, eta zenbait lehiaketetan ere (Errenteria, Leioa, Pasaia...) aurkeztu dut. Erantzunen zain nago. Bestalde, ilusio berezia eragingo lidake jaioterrian, Andoainean aurkeztea. *Maddi eta Patxi* film laburra Basteron aurkezteko aukera eduki nuen 2015ean, eta oroitzapen polita daukat, jendeak harrera beroa egin baitzion”.

Azken aldian eskarmenturako balio izan dioten bi proiektuetan

parte hartu du andoaindarrak. Izen handiko bi zuzendariren esanetara, gainera. Argazki zu- zendaritzan jardun du Pablo Maloren *Carnicas 45* film labur- rean, eta ekoizpen ardurak hartu ditu Jose Mari Goenaga- ren *Hasiera* film laburrean. “Iruditzen zait punta-puntako euskal zinemagintzan murgiltzea egokitu zaidala, eta horrek ofi- zioan izugarri ikasteko aukera eman dit”.

Arrate Fernandez film laburren arloan ez da atzo goizean hasi- tako egilea. 2003an *Ekintzen ispilu gardena* egin zuen, eta 2005an *Arbasoen argi iraunkorra*.

Film luzea, erronka gisa

Amesten hasita, ez du bazterten film luzerako jautzia ematea: “Egindako ibilbidearen ostean, zergatik ez?”. Baliabide tekniko eta giza baliabideekin batera, arlo ekonomikoan dago koska, “oso-oso garestiak izaten dira horrelako ekoizpenak. Hori guz- tia jakinda ere, eusten diot erronkari”. Egun hori iristen denerako prestatzen jarraitzen du. Bien bitartean, formakuntza teknikoetan murgilduta jarrai- tzen du.

"Dantza", Durangotik Euskal Herriko zinema aretoetara

Abenduaren 5ean estreinaldi berezia egingo dute Durangoko Zugaza zinemaren, 20:30ean hasita



Andoaingo dantzariak "Dantza" filmaren grabaketan parte hartu dute.

Erredakzioa ANDOAIN

Dantza filmak dantza tradizio- nalen unibertso hipnotikoa iru- dikatzen du. Telmo Esnalek zuzenduta eta Txintxua Filmsek ekoiztuta, grabaketa saioak egin zituzten Gipuzkoa, Nafarroa, Bizkaia, Lapurdi eta Zaragozan barrena. Durangon aurre estre- inaldia egin eta gero, filma are- toetan estreinatuko dute datorren abenduaren 21etik aurrera. 250 dantzari baino gehiagok parte hartu dute tradizioari, lurrari, haren jendeari, mitoei eta ohi- turei egindako kantu poetikoan.

Tartean, Andoaingo dantzariak. Asmo handiko sormen-apustu handia egin du Telmo Esnal zinemagileak film horretan; Koldobika Jauregi artistak zu- zendu du bertan islatzen den unibertso estetiko eta bisuala, eta Juan Antonio Urbeltz iker- tzaile eta folkloristak izan du koreografiak koordinatzeko eta ikuskatzeko eginkizuna.

Filma 2018ko Donostiako Zi- nemaldiko Sail Ofizialean eskai- ni zuten, eta jaialdi berean Greenpeacek Lurra Saria eman zion.



AIURRI

Urnietarren kantua disko berrian

Edure Orbegozo, Leire Iriberrri, Idoia Gorroño eta Mikel Artolak osatzen duten Triki-ni taldearen abesti bat Euskal Herriko Trikitixa elkartearen disko berrian txertatuko dute. Urniatarren Lourdes Iriondo musika eskolako ikasleak dira laurak. Disko hori salgai izango da Durangoko Azokan, baita Euskal Herriko Trikitixa elkartearen webgunean ere.

2,5 milioi euroko mailegua eskatuko dute

Kiroldegia berritzeko aurrekontua 8 milioi eurokoa izango da. Udalak horrela egingo du ordainketa: 5.200.000 euro Udaleko altxortegitik, 220.000 euro Foru Aldundiaren diru-laguntzatik eta falta diren 2.580.000 euroak eskatuko den mailegutik

Erredakzioa URNIETA

Azken urteotako inbertsiorik handiena egitear da Urnietako Udala. Azaroko Udal batzarraldian oniritzia eman zioten proposamenari, kreditu aldaketa bozketara eramanez. Alderdi abertzaleen aldeko botoarekin eta sozialisten aurkako botoarekin.

Sabai Arkitektoak enpresarena da kiroldegia berritzeko proposamen tekniko, anbizio handikoa. Alkateak adierazi zuenez, "erabili dugun irizpide nagusia kirol federatuen dabilen pertsonen, Eskola Kirola egiten duten haurren eta banakako erabiltzaileen beharrak asetuko dituen kiroldegia egitea izan da". Hasierako aurrekontua igo egin da, erabiltzaileen mesedearako baliabide gehiago erantsi dituztela argudiatuta.

PSE-EE aurka agertu zen erabat, aurkeztutako egitasmoaren eta proposatutako aurrekontuaren aurka.



Kirol instalakuntzak Urnietan, airetik ateratako irudian. UDALA

EH Bildu, berriz, ados agertu zen Urnietaren tamaina kontuan hartuta, instalazio egokiak izango direla argudiatuta.

Puntako zerbitzua eskainiko dituen kiroldegia egin nahi dute. Alkatearen hitzetan, "eskualde mailan erreferente izan daitekeen kiroldegia".

Finantziak

8 milioi euro	
Udala:	5.200.000,00
Mailegua:	2.580.000,00
Dirulaguntza:	220.000,00

Hurrei eskainitako tailer ezberdinak Eguberrietan

2008-2013 urte bitartean jaiotako haurren aisialdia Eguberrietan. Parte hartzeko, izena eman behar da

Erredakzioa URNIETA

Urnietako Udalak egitarau opa-roa antolatu ohi du Eguberrietako. Laster iragarriko dute egitarau osoa. Bitartean, haur eta gazte sailak hainbat ekintza antolatu ditu, eta horietan parte

te hartzeko datorren abenduaren 17a baino lehen izena eman behar da. Tailerretan parte hartzeko kopurua mugatua da, eta haurrak izena eman duten hurrenkeraren arabera onartuko dituzte.

Hauxe da Eguberrietarako eskaintza: Abenduaren 26an magia tailerra Lekaion (2 txanda), 27an sukaldaritza tailerra Gaztelekuan (2 txanda), 28an zientzia esperimenduak Lekaion eta 31n Eureka museora bisitaldia.

Haurren gurasoek izena emateko aukera ezberdinak dituzte. Urnietako Udalaren webgunean eskegita dagoen formularioaren bidez, edota Bertan bulegoetan, Lekaion, edo Ludoteka izenemate orria entregatuz.

Errefusarako edukiontzi grisa landagunera zabalduko dute

Urnietako Udalak neurri berritzailea iragarri du, 2019ko urtarrilean hasita martxan jarriko dutena

Erredakzioa URNIETA

Urnietako Udalak hondakinak bereiztu eta sailkatzeko bidean urrats berria emango du. Herri-gunean bilketa selektiboa hantzeko hainbat neurri hartu eta gero, Udalak landagunean aldaketak egingo dituela iragarri du. 2019ko urtarrilean hasita, errefusarako zeuden edukiontziak

kendu eta gris koloredunak ipiniko dituzte. Eta hauek, herri-gunean egin bezala, sarrailarekin itxita izango dira. Aldaketa bakarrarekin: Landagunean edukiontziak egunero zabaldu ahal izango dira. Arrazoia, honakoa: "Landaguneko pertsona dezentek edukiontziak etxetik urruti samar izango dituztelako".



Bilketa landagunean



2019ko urtarrilean hasita

Edukiontziak

Landagunean lurrazpikoak kenduko dituzte, gris koloredun berriak ipintzeko. Txartel elektronikorekin bakarrik irekiko dira, asteko egun guztietan. edukiontziak istean, kanpoko bisitarien zaborra saihestea lortu nahi da.

Txartela errefusarako

Eskuratu ez duenak, abenduaren 3tik abenduaren 28 bitarte, Bertan bulegoan (07:30-14:30).

Edukiontzi organikorik ez

Organikoaren edukiontzirik ez da ipiniko, inguruan autokonposta egin ohi delako. Konpostagailua ez dutenei, Udalak konpostagailua eskuratzeko erraztasunak emango dizkie.

Guneak

Edukiontzi guztiak elkarrekin jarriko dituzte, landaguneko hainbat puntutan. Lau edukiontzi denera: Errefusa, papera, ontzi arinak eta beira. Guneak:


- Goiburu: Benta, Xoxoka, Besabi.
- Lategi: Gurutzeaga.
- Oztaran: Pagoain.
- Lategi: Gurutzeaga.

Gune berriak:

- Oztaran: Otxotegiko ur biltegiaren ondoan.
- Goiburu: Goibieta.

Kenduko dituztenak:

- Goiburu: Ormazarreta, Goiko Barkaitegi.
- Oztaran: Bidegurutzea, Artolea.
- Ergoien: Azkonobieta.



Andoni Egia Beterri-Buruntzako Udalak garapen agentziako teknikaria, Juan Kruz Alberdi Behemendiko arduraduna eta Jon Zulueta Andoaingo Udaleko ordezkarria joan zen ostiralrean egin zuten aurkezpen ekitaldian. AIURRI

Bordaberrin lursail zabala nekazaritzarako bideratuko dute

Behemendi Elkartek, Sorabilla-Bordaberri eremuan, agroalde ekologikoa eraikitzeko lursaila egokituko duela iragarri du, Ekimena nekazaritza bere lanbide bezala ikusten duen edonori zuzenduta dago

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Lehen sektorean lanean hasteko gogoia duenari aukera interesgarria zabaldu zaio Andoainen bertan. Beterri-Buruntzako Behemendi landa-garapenerako elkarteak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, lanean hasteko behar diren oinarrizko azpiegiturekin lur saila egokituko du: "Lursail osoa mekanizagarria da, ur hornidurarekin egokitua dago eta tresneria eta generoa gordetzeko biltegi txiki

batekin osatuko da. Gutxienez hamar urterako lagapena egingo da. Bordaberrikoa baratze-gintzarako 8173 m²-ko lur eremu oso egokia da, eta bi lanpostu sortzeko aproposa. Informazio gehiago nahi duenak 943 490 219 telefono zenbakira deitu edo behemendi@behemendi.eus helbide elektronikora idatz dezake. Andoaingo eta inguruko herrietako edonork bere burua aurkezteko aukera izango du. Helburua produktu ekologikoen

ekoizpena eta kontsumoa sustatzea da, baratze-gintzarako bideraturiko proiektuak lehenetsiz. Lehiaketa edo konkurtsora aurkezteko epea dagoeneko zabaldu da eta abenduan zehar proposamenak aurkez daitezke".

Errenta sinbolikoa

Partzela errenta sinboliko baten truke esleituko da. Nekazaritza suspertzea da helburu nagusia, nekazal jarduera lanbide aukera egokia izan daitekeelako.

"Bordaberriko lurra naturala da, nekazaritza ekologikorako egokia"

JUAN KRUZ ALBERDI BEHEMENDI

"Agroaldea kontzeptua duela 25 urte edo sortu genuen, industriguneen logika nekazaritzara aplikatu nahian. Gure eskualdea oso urbanoa da. Lur gutxi dago, eta hirigintza alorretik presio handia jasotzen du. Joera bat dago orain, izan ere gune urbano horietatik nekazaritzarako interesa sortzen ari baita. Gure helburua lurrik ez zutenei lehen sektorean murgiltzeko lana erraztea da. Udalekin hizketan hasi ginen eta lurra aztertzen hasi ginen. Negutegi asko sortu zen horrela, baratze-gintza sektorerantz bideratuta bereziki. Gaur egun lurra eskatzen duenak nekazaritza ekologikora bideratu nahi du bere negozioa. 30-40 inguruko pertsonak dira, bere bizitzako proiektua nekazaritzara bideratu nahi dutenak. Azken urte hauetan



AIURRI

Udalekin eta lur jabe pribatuekin lanean hasi gara. Behemenditik lurra lantzeko oinarrizko azpiegitura ipini eta lehiaketara ateratzen dugu. Lurra landuko duenari errenta sinbolikoa ezarriko zaio, asmoa jende gaztea lehen sektorean murgiltzea baita. Horregatik Gazte plana egitasmoan sartuta daudenek lehentasuna izango dute. Andoaingoa, nekazaritza ekologikoa lantzeko aproposa da. Zehazki, baratze-gintzari begira".

"Bertako produktuen kontsumoa sustatzen du KMO ekimenak"

ANDONI EGIA BETERRI-BURUNTZAKO UDALAK GARAPEN AGENTZIA

"Beterri KMO gure baliabide propioekin abiatu genuen, eta gaur egun, Eusko Jaurlaritzaren finantziak jasotzen du. Helburua lehenengo sektorearen dinamizazio lana egitea da. Horretarako egin dugun lehen lana eskualdeko ekoizpenaren kontsumoa sustatzea izan da, bi bide nagusi erabiliz: Lehena, jantoki publikoetan ingurugiro klausulak jartzea, bertako produktuak kontsumitzera bideratuz. Dagoeneko bertako produktuak kontsumitzen ari dira Andoaingo Galardi haurreskolan, Hernaniko zaharren egoitzan edota igerilekuan, eta Usurbilgo ikastolan. Bestetik, bertako produktuen kontsumoa sustatzeko kanpaina burutzen ari gara ostalaritzan.

Bestalde, ekoizleekin ere lanean ari gara. Ekoizleentzat



AIURRI

egokia izan daitekeen distribuzio edo zabalpen gunea sortzen ari gara, sortu den eskaintzari erantzun bateratua eta koordinatua eman nahian. Dagoeneko eskualdeko hamabi ekoizlerekin lanean ari gara.

Azkenik, Behemendirekin batera, lursail berriak identifikatzen eta ekoizle berriei aukerak ematen saiatzen ari gara.

Gure beste lan ildo sentsibilizazio eta komunikazio lanetan jarraitzea da".



Ezkerrean hasita, lehena da David Sierra entrenatzailea. AIURRI

“Kirolarekiko neskek duten konpromisoa da garrantzitsuena”

DAVID SIERRA URNIETAKO GORENGO MAILAKO NESKEN ENTRENATZAILEA
Lidergotzan sendo ekin diote bigarren itzuliari. Emaizta onak lortu dituzte, bikainak, baina entrenatzaileak joko onari erreparatu dio. Joko onari, eta jokalarien konpromisoari

Amaia Senperena URNIETA

Bigarren itzuliari ekin diozue garaipen argiarekin: 7-0. Indartsu zaudetela dirudi! Zein da sekretua?
Emaizta aldetik oso gustura gaude bai, baina emaitza horrek ez du partida islatzen. Azken 15-20 minutuak gure aldekoak izan baitziren eta, gol gehienak ere denbora horretan iritsi ziren.

Ez dago sekreturik, aurreko urteko taldearekin alderatuz, aurreko sortu dugun taldea oso gaztea da. Hogei jokalarirekin

hasi genuen denboraldia, eta baita ondo bukatu ere. Nire us-tean oso denboraldi polita egin genuen. Baina, jokalarien erdia geratu zen taldean, besteek ikasketak eta gauza pertsonalak zi-

"KOPURUAN TALDEA TXIKIA DA, BAINA KIROLAREKIKO KONPROMISO MAILA ERAKUSTEN DUTE"

rela medio, taldea utzi behar izan baitzuten. Beraz, aurreko taldea birsortzen hasi dugu denboraldia. Bigarren urteko kadete eta jubenilekin 16 jokalarik osatzen dute taldea. Talde txikia da, baina garrantzitsuena neskek kirolarekiko duten konpromisoa da. Badakite nondik datozen, non gauden eta euren konpromisoari esker, gauden tokira iritsi gara. Dudak genituen, eta hasiera gogorra izan bada ere, erritmoa hartu dugula esango nuke.

Bigarren sailkatuari 7 puntuko alde ateratzen diozue. Hainbestekoa al da bestekiko diferentzia?

Emaizta aldetik, ondo goaz eta puntuak lortzen ari gara. Baina 5-2 irabazi genuen partidaren, adibidez, azken bost minututan hiru gol sartu genituen. Emaiztak ez dira beti partidaren isla. Hala ere, oso gustura nago taldearekin eta baita alboan dudan laguntzailearekin ere.

Askok esaten dute garrantzitsuena entrenatzailea dela, baina ni ez nago guztiz ados horrekin. Momentu honetan neskak dira taldea ondo joatearen arazoia. Gauza asko esan baititzaizket, baina eurak dira kasu egiten didatenak ala ez.

Gustura zaude, beraz?

Bai, taldearekin oso gustura. Eta beraiek ere konpromisoa erakusten ari dira. Egia da emaitzek ere laguntzen digutela konpromisoari eusten, eta hori ere positiboa da.

9 partidatetik 7 partidatan ez duzue golik jaso, hutsen utzi duzue atea. Defentsa ona al da erasoari ekiteko onena?

Kontrara sei gol sartu dizkigute. Partida batean lau, eta beste batean bi. Aukerak ere izaten dituzte guri golak sartzeko, baina batzuetan ez dute zortzerik eduki.

Mailari begiratuta, kalitate eta gaitasun aldetik gauzak aldatzen ari direla esango nuke. Lehen Gipuzkoan Oiartzun, Añorga, Erreala eta Eibar bezalako taldeak izaten ziren talde indartsuenak, baina hori orain aldatzen ari da. Geroz eta herri gehiagotan baitaude nesken taldeak.

Eskualdean aurkaririk ez duzuela dirudi: Hernaniri 3-0, Euskaldunari 4-0...

Eskualdean ere maila polita dago. Ez da berdina gure kategoriaren maila edo Euskal Ligak duen maila, baina talde guztien maila goraka doala nabaritzen da. Bi urte daramatzat taldea entrenatzen eta nabaritzen dut gure taldeak bezalaxe, inguruko taldeek ere maila polita dutela. Oraingoak txikitatik ari dira entrenatzen eta hori nabaritu egiten da.

"EMAITZETATIK AT, ZALETUAK FUTBOLAZ GOZATZERA GONBIDATUKO NITUZKE"

Zer nolakoa da nesken taldeko entrenatzailea izatea?

Lehen jokalaria moduan aritzen nintzen, titulua atera eta nesken taldeko entrenatzaile postua eskaini zidaten. Bertan lanean hasi nintzenean, beraiek nitaz ikasten ari ziren bezalaxe, neuk ere haietaz ikasten nuela ohartu nintzen. Horrez gain, gaur egun, nesken futbola telebistan zein zuzenean ikustea mutilen futbola ikustea baino gehiago gustatzen zait, eta ez dut ondo geratzearen esaten.

Gipuzkoako futbol talde guztiei, nesken futbola bultzatu beharra dagoela esango nieke, hemendik gutxira ikusiko baita nesken futbola bizi duen garapena.

Jokalaria izan zara, eta orain entrenatzaile lanetan zabilta. Zer da zuretzat UKE?

Orain arte dena eman didan elkarte bat da. Hernaniarra naiz baina futbolari moduan UKEn ibili naiz beti, eta orain entrenatzaile lanetan nabil bertan. Klubak, gainera, nire entrenatzaile hasieratan laguntza handia eman dit. Euren balioetan lehenengo postuan baitago bertako taldeak herriko jendearekin osatzearena. Gauza ez da kanpoko jendea ateak ixtea, baina bai lehenetasuna herriko jendea ematea. Nesken taldean, adibidez, bi andoaindar ditugu gure artean, baina etxekoak bezala dira, sei urte baitira gure artean futboleko dabiltzala.

Zein ibilbide egin nahiko zenuke?

Entrenatzaile munduan segitzea gustatuko litzaidake, bigarren mailako titulua ateratzea eta ahal badut, nesken futboleko entrenatzaile moduan segitzea. **Orain mutilen talde entrenatze-ko eskatuko balizute, nesken taldean geratuko al zinateke?**

Bai, nesken taldean geratuko nintzateke. Zalantzarik gabe.

Nola adieraziko zenioke jendea nesken futbola ikustera joateko?

Jendea, azkenean, emaitza onak ikustean soilik etortzen da gure partidak ikustera. Baina, bai, egunen batean gerturatzea eta partidaren bat ikustera gonbidatuko nituzke. Orain arte bederatzi partidatik bederatzi irabazi ditugu, baina oraindik ez dugu ezer lortu. Igoerarako bidean, ligako lehenengo postuan amaitu behar dugu eta hori oso zaila da. Baina, emaitzetatik at, zaletuak futbolaz disfrutatzea gonbidatuko nituzke.

Xabier Alkorta eta Koldo Ponce txapeldun-ordeak Gipuzkoan

22 urtez azpikoen paleta goma txapelketan, Andoaingo Gaztelekukoek finala jokatu zuten Altzakoan aurka



Ponce eta Alkorta Gaztelekuko bikotea. GAZTELEKU

Erredakzioa ANDOAIN

Lesioa tarteko, andoaindarrek ezin izan dute beren maila onena erakutsi. Hala eta guztiz ere, finala jokatzeko aukera izan dute. Azken partida Donostiako Altza taldekoen aurka jokatu zuten (25-14). Gauzak horrela, 22 urte azpiko paleta goma txapelketako aurtengo txapeldunak Rekondo eta Udakiola donostiarrak dira. Xabier Alkorta eta Koldo Ponce, aldiz, txapeldun-ordeak.

Gaztelekukoek sari polita jaso dute: Euskal Ligan jokatzeko txartela eskuratzea.

Gaztelekun, azken urteetan, palan aritzeko belaunaldi berriak sartu dira eta Mateo Ponce entrenatzailearen eskutik, lan polita egiten ari dira. Lan hori bere fruituak ematen hasi da.

Janari bilketa futbol zelaian

UKE futbol taldeko jokalariek ekimen txalogarria burutu zuten: partida egunean janari bilketa berezia egitea, Elikagai Bankuaren kanpainarekin bat eginez. Egunean bertan 120 kilo biltzea lortu zuten. Aiurrik sare sozialetan zabaldu zuen ekimena, eta Euskalduna SD taldeak "txalogarria" esaldia iruzkindu zuen. Elkartasun keinua, gazte kirol taldeen eskutik.



AIURRI

SAN SILBESTREA

Andoain

Abenduak 31, astelehena

Izena eman: herrikrosa.eus

- Helmugan ura eta fruta.
- Mozorro onenari saria.
- Komertzioek banatutako sariak.
- Kiroldegian dutxak eta konsigna zerbitzua.
- 16 urte azpikoak gurasoen baimena beharko dute.

Laguntzaile: AIURRI

LASTERKA ITZULI

11:30.
Zumea plaza.
5,3 km.

Abenduaren
30era arte: 6€

Abenduaren
31n: 8€

1 Hernani **30 puntu**

4 Urnieta **19 puntu**

6 Euskalduna **15 puntu**

KARTELDEGIA: FUTBOLA, ESKUBALOIA, SASKI

FUTBOLA

PREFERENTE MAILA

EMAITZAK	
Gure Txokoa-Euskalduna	1-5
Ostadar-Urnieta	5-1

SAILKAPENA

1 Euskalduna	33 puntu
14 Urnieta	7 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK

20:00 Euskalduna-Touring / Astzk,5
18:30 Orioko-Urnieta / Osteguna, 6

GORENGO MAILA, NESKAK

EMAITZAK	
Urnieta	Atsedena
Euskalduna-Goierri Gorri	3-0

SAILKAPENA

1 Urnieta	27 puntu
3 Mutriku	18 puntu
4 Euskalduna	17 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK

19:00 Urnieta-Intxurre / Asteazkena, 5
15:30 Hernani-Euskalduna / Osteguna, 6

ERREGIONAL MAILA

EMAITZA	
Ostadar-Euskalduna	1-1

SAILKAPENA

1 Danena	26 puntu
7 Sporting de Herrera	15 puntu
8 Euskalduna	14 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

12:45 Euskalduna-Vasconia / Osteg, 6

JUBENIL MAILA, OHOREZKOA

EMAITZA	
Euskalduna-Ilintxa	2-0

SAILKAPENA

1 Billabona	25 puntu
8 Ilintxa	18 puntu
9 Euskalduna	16 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

17:45 Urki-Euskalduna / Osteguna, 6

JUBENIL MAILA

EMAITZA	
Lazkao B-Euskalduna	0-1
Urnieta-Usurbil	2-2

SAILKAPENA

1 Hernani	30 puntu
4 Urnieta	19 puntu
6 Euskalduna	15 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK

15:30 Euskalduna-Mundarro / Osteg, 6
11:15 Ostadar-Urnieta / Igandea, 9

ESKUBALOIA

SENIOR MAILA

EMAITZA	
Urnieta-Munttarpe	31-34

SAILKAPENA

1 Munttarpe	14 puntu
2 Bidasoa Irun	12 puntu
3 Urnieta	11 puntu

SENIOR MAILA, NESKAK

EMAITZA	
Leizaran-Munttarpe	28-23

SAILKAPENA

1 Urbil Usurbil	14 puntu
2 Egia Kopidin	10 puntu
3 Leizaran	10 puntu
4 Munttarpe	10 puntu

SENIOR 2. MAILA

EMAITZA	
Aloña Mendi-Urnieta	33-17

SAILKAPENA

1 Urnieta	12 puntu
2 Saieko Horia	12 puntu

EMAITZA, 2. MULTZOA

Leizaran-Urola Laztimendi	23-23
---------------------------	-------

SAILKAPENA

1 Leizaran	15 puntu
2 Urola Laztimendi	15 puntu

JUBENIL MAILA

EMAITZA	
Egibide-Leizaran	32-24

SAILKAPENA

1 Ereintza Aguaplast	4 puntu
4 Bidasoa Irun	1 puntu
5 Leizaran	1 puntu
6 Ereintza Beissier	0 puntu

EMAITZA, 13-18 POSTUAK

Urnieta-Hondarribi	32-19
--------------------	-------

SAILKAPENA

1 Urnieta	4 puntu
2 Beristain Elgoibar	4 puntu
3 Tolosa B	2 puntu

JUBENIL MAILA, NESKAK

EMAITZA	
Urnieta-Eibar	20-25
Ereintza-Leizaran	24-19

SAILKAPENA

1 Elgoibar	4 puntu
4 Leizaran	2 puntu
6 Urnieta	0 puntu

SASKIBALOIA

JUNIOR MAILA

EMAITZA	
Take-Ganbara	45-34

SAILKAPENA

1 Hernani Txiki	16 puntu
5 BKL Aratz	10 puntu
6 Ganbara	8 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

09:00 Ganbara-BKL / Larunbata, 15

KADETE MAILA

EMAITZA	
Ganbara-Take lurre	26-59

SAILKAPENA

1 Hernani	12 puntu
2 Take Alde Zaharra	11 puntu
6 Zast Orio	7 puntu
7 Ganbara	6 puntu

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

ASTEAZKENA 5

ANDOAIN Dantza ikastaroa

Helduentzat euskal dantzak, Urkiren eskutik. Urtarrilaren 15ean hasita, asteartero Olagainen. Bi talde: lehenengo maila (19:00) eta maila aurreratua (20:00). 90 euroko kuota. Izen ematea: 629375147.

Azken eguna: Abenduak 20.

URNIETA Tailerra

Autodefentsa feminista tailerra egingo dute Saroben, datorren abenduaren 15ean 09.30etik 13.30era. 14 urtetik gorako emakumei zuzendua dago. Izena eman daiteke Bertan bulegoetan, Gazte Informazio gunean edota Urnieta.eus webgunean.

Azken eguna: Abenduak 5.

ANDOAIN Kontzertua

Malkogarriyak taldea zuzenean, 20:30ean hasita. Lehenago, 19:00tik aurrera pintxo pote berezia.

19:00, Irunberri.

ANDOAIN Kontzertua

Mick Harvey australiarrek zuzenean "Songs of Serge Gainsbourg" emanaldia eskainiko du. Haren aurretik Mursego arituko da. Sarrera: 12 euro.

21:30, Bastero.

URNIETA Erakusketa

Emeek emana: 1936ko Gerra eta frankismo garaiko kontakizunak emakumeen aurpegiak, emakumeen ikuspegitik.

Azken eguna: Abenduak 5.

Lekaio. Ordutegia: 17:00-20:00.



Andoaingo Udal ordezkariak, joan zen azaroaren 10eko Memoriaren egunean.

ANDOAIN "Memoria partekatu baterantz" txostenaren aurkezpena

Ekitaldi irekia izango da, herritar guztiei zabalik dagoena. Bertan Andoaingo Udalak 1956tik 2018ra bitarte izan diren giza eskubideen urraketek eta indarkeria ekintzen txostena aurkeztuko du.

Abenduak 12, asteazkena. 19:00, Bastero.

ANDOAIN Erakusketa

Andoaingo iragan mendeko dozenaka argazki ikusgai daude. Paisaiaren eta herrikideen oroitzapena, Truchuelo anaien argazkien bidez.

Azken eguna: Abenduak 29.

Bastero. Ordutegia: Ohikoa.

IGANDEA 9

ANDOAIN Kontzertua

Aspanogi elkartearen aldeko elkartzasunezko kontzertua.

12:00, Bastero.

OSTIRALA 14

ANDOAIN Antzerkia

Atx Teatroa konpainiaren eskutik, 7ak bat: "Frankenstein inspirazio moduan hartuta, gure kulturako zazpi pekatu kapitalak eta beste kulturetako beste hainbat hartu eta guztiek gizaki berri bati bizia emango diogu, groteskoa, basatia, gupidagabekoa...". Komedia, satira, sarkasmoa Bilboko konpainiaren eskutik.

21:30, Bastero.

ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****Infiltrado en el KKKlan**

Larunbata, 8: 19:30; 22:00.

Igandea, 9: 19:30.


Astelehena, 10: 19:30; 22:00.

Horman erlojua duen etxea

Lar, 8: 17:00. Eusk. Ig, 9: 17:00.

URNIETA**SAROBE****Cavernicola**

Igandea, 9: 17:00.



SINOPSIK

**Infiltrado en el KKKlan**

Zuz.: Spike Lee. **Herr.:** Estatu Batuak (2018). **Iraupena:** 128 minutu. **Hizkuntza:** Gaztelania.

Spike Leeren berriena

70eko hamarkada, Ron Stallworth Colorado Springs-eko lehen polizia beltza da. Ku

Klux Klan barruan sartuko da eta herriaren aurrean erakutsiko du.

Cavernicola

Zuz.: Nick Park **Herr.:** Erresuma Batua (2018). **Aktoreak:** Eddie Redmayne, Maisie Williams, Tom Hiddleston... **Iraupena:** 89 min.

Tribua babesteko futbol partida

Dinosaurioak eta mamutak lasai bizi diren garaian, Dug-ek bi gizatalderen arteko lehiaketan hartuko du parte, bere basurde Hognob-rekin. Harri Aroa eta Brontze Aroa

elkarren aurka. Dugek lehiaketaz gain, bere tribuaren biziraupena du jokoan eta Nooth gaizkileari aurre egin beharko dio historiaurreko futbol partidari.

**La 2.ª Guerra Carlista en Gipuzkoa (1872-1876)**

Liburuaren azken aleak salgai
Andoainen: 30 €

Erosi Stop, Delgado eta Ernaitza liburudendetan.



GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Osteguna 6

PAJARES: Zumea kalea, 20.
943 592 629. Andoain.

Larunbata 8 eta igandea 9

DIAZ FERNANDEZ: Nagusia, 19.
943 592 057. Andoain.

URNIETA

Larunbata 8 eta igandea 9

ODRIOZOLA: Idiazabal 18.
943 334 014. Urnieta.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak. Oso erraza da, eta dohainik:

**www.aiurri.eus
webgunea**

"Zorion agurrak" atalean, fitxa osa ezazu. Urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunean. Ez dadila tamaina handiko argazkia izan. Tamaina editatzerik ezean, erabili ezazu posta elektronikoa.

diseinua@aiurri.eus

Mezua eta argazkia bidali Aiurriko posta elektronikora, herria zehaztuz. **Arantzia 4-5, behea. Andoain** Etor zaitez bulegora: 943 300 732. **Whatsapez:** 619 16 35 37 Mezua eta argazkia bidali Aiurriko posta elektronikora, herria zehaztuz.

Euskarazko aplikazioak

Bidaidek aplikazioen inguruko hitzaldia eskaini zuen La Salle Berrozpe ikastetxean. Lurdana Acasuso Azkue Fundazioako zuzendariak sareko APP aplikazioen berri eman zuen, guztiak ere euskaraz eta haurren heziketarako lagungarriak direnak

Bidaide egitasmoa

Mintzalaguna / ANDOAIN

Guraso eta zenbait irakasleren artean hogeit hamar bildu ginen, eta bertaratutakoek oso gustora aditu genituen Acasusoren azalpenak. Berak adierazi bezala, arazorik handiena bilaketan datza. Izan ere, ez dago euskarazko aplikazioak biltzen dituen sare bilgune amankomunik; garatzaile bakoitzak bere produktuak egiten ditu eta sarean zehar barreiatuta daude, eta kuxkuxean ibili beharra dago hauek bilatzeko. Produktu berriak eta berritzaileak egon badaude, baina zailena hauen berri izatea da.

Azkue Fundazioak lan txukuna egin du alor horretan, txosten eguneratua osatu baitu egungo aplikazio interesgarriak bilduz.



APP aplikazioak eskuko telefonoan.

Hitzaldiaren aurretik, bestalde, Bidaide egitasmoaren berri eman zuen Andoaingo AEK-ko ordezkariak.

Zer da, bada, Bidaide?

Labur esateko, gurasoei eta haurrei elkarrekin euskaraz jolasteko aukera eskaini nahi dien programa da. Hainbat helburu ditu: guraso eta haurren artean euskararen erabilera sustatzea, aisialdirako aukera eskaini eta ondo pasatzea, eta harreman sare berriak osatzea. Urtean zehar hainbat ekintza egingo dituzte.

Interesa duenak Andoaingo Udalerara eta euskaltegira jo dezake informazioa osatzera.

"AZKUE FUNDAZIOAK LAN TXUKUNA EGIN DU APP APLIKAZIOEN TXOSTEN EGUNERATUA OSATUZ"

Urnietako EH Bilduren parte hartze prozesua

2019ko maiatzean Udala eta Foru hauteskundera begira, Urnietako EH Bildu prestaketa lanetan murgildu da: "Abenduaren erdialdera arte, alkategaiari eta zerrendakideei buruzko proposamenak egiteko aukera izango dugu, horretarako propio prestatutako orri bat baliatuta". Eskuz esku, e-postaz eta telefono

bidez banatzen ari dira dagoeneko orri hori. Proposamena helarazteko aukera ezberdinak dituzte, besteak beste, "EH Bilduko zinegotziei, sobre itxi batean ematea".

Datozen abenduaren 7an eta 14an EH Bilduk mahaia jarriko du Urnietan, Zaldundegi tabernaren parean, proposamen horiek jaso ahal izateko.

Ezustekoa, besterik ez

Abenduaren 3an sutea piztu zen Urnietako Aldapeta kaleko 21. zenbakiko etxebizitzan. Sutea zerk eragin zuen ez zegoen argi, une horietan. Etxearen ertz batetik kea irteten ikusten zen. Abisua jaso eta gero, suhiltzaileak eta Ertzaintza berehala hurbildu ziren, eta minutu gutxitan sutea kontrolpean geratu zen sutea. Ez zen zauriturik egon.



AIURRI

Urnietako Santa Kruz elkartearen hitzorduak

Datorren abenduaren 16rako Urnietako elkarateak, ehiza xehe txapelketa txakurrarekin antolatu du. Adarra mendian izango da, 09:00etatik 13:30era. Izena eman nahi duenak, datorren abenduaren 10a arte eman dezake Santa Kruz elkartearen egoitzan. Izen-emateak 25 euroko kostua du. Txapelketan lau pieza edukiko ditu ehiztari bakoitzak. Sari banaketa Besabin

egingo dute. Afaria ere egongo da parte-hartzaileentzat. Afaltzeko asmoa duenak txapelketarako izena ematen den unean eman behar du izena.

Mus txapelketa

Abenduaren 22an mus azkarra txapelketa antolatu du Santa Kruz elkarateak, 16:00etan. Sariak lehen lau sailkatuentzat.

"Gerrateko ibilerak" Iñaki Alkain - Antonio Zavala
Liburua

Salgai: 10€

Manuel Larramendi Kultur Bazkuneko egoitza
Aiurriko erredakzio bulegoa





Jaialdiaren aurkezpeneko irudia. AIURRI

AZKENA

Bertso saioa Peña Santa Krutz elkartearen

Larunbat gauean, elkarteko kideek bertsoarekin duten urteroko hitzordua berritu zuten. Sebastian Lizasok eta Aitor Mendiluzek saio ederra eskaini zuten, parean eta alboetan zituztenak zirikatuz. Abestu aurretik, bazkide talde batek egindako afariar gozatu zuten

Aiurri.eus gunean

Larunbat gaueko bertso saioak emandakoa ikusgai dago Aiurri.eus gunean, eta baita Youtube kanalean Aiurrik duen gunean ere. Bereziki, mahai ondokoak hizpide izan zituzteneko bertsoak ikus daitezke.

Aspanogi minbizia duten haurren aldeko jaialdia, igande eguerdian Basteron

Erredakzioa ANDOAIN

Minbizia duten haurrekin lan egiten duen Aspanogi elkartearen aldeko jaialdia ospatuko da igandean, 12:00etan hasita. Sarrerak honako lekuetan salgai daude: Triana eta Bertxin elkarteak, Anita, Stop, Delgado, Tahona, Bastero kafetegia, Muga, Txitibar, Elizondo, Maiton tabernak eta Bastero eta Xalo loteria administrazioak.

Andoaingo musika eta dantza taldeen partaidetza zabala da: Olagain txistularien elkarteak, Alberto Agirre abesbatza, Gora Kaletxiki Banda, Soinuak musika eskola, eta Urki eta Triana dantza taldeak. Marife Nogales mezzo soprano andoaindarra eta Amaia Gonzalez dantzaria ere bertan izango dira. Triana elkartearen piztu zen ideia, eta Gora Kale Txiki bandaren laguntza izan dute antolaketarako. Joxe Mari Oiarzabal musikariak egituratu du jaialdia, eta musika eta dantza izango ditu ardatz.



Sukaldari lanetan aritu zen taldea, Carballo eta Goia buru zirela: Alazne Uria, Miguel Alvarez, Felix Roca, Agus Etxeberria, Paulo Berasain, Joxe Manuel Igarategi, Joxe Mari Carballo, Gorka Nogales, Josu Brosa, Juan Granado eta Antonio Goia.

Erredakzioa ANDOAIN

Umerez beteriko saioa izan zen, larunbat gauekoa. Bereziki, gai librean ingurukoak zirikatzen hasi zirenean. Hizpide izan zituzten, besteak beste, Josu Lekuona Aita larramendi ikastolako irakaslea edota Lourdes Arteaga azken aldi honetan Gure esku Dago ekimenean bereziki nabarmendu dena. Carballo eta Goia sukaldariei ere hainbat bertso eskaini zieten.

Ziria sartzeko dotorezia handia dute bertsolariek, eta horretan Lizaso eta Mendiluze maisu dira. Lehena, behin baino gehiagotan etorri da elkartera. Bigarrenari

aski ezagunak zaizkio hainbat eta hainbat pertsona. Lizaso hasi zen Josu Lekuona bertsoaren aipatzen, Aitor Mendiluzeren irakasle izan zela aitzakiaz hartuta: "Alde batera utzi ditza-gun, nahiz kezka den barrenean. Afal giroan segi dezagun, umore ederrenean. Ta Aitor gaurkoz ikusten zaitut erarik jatorrenean, oraindik ere umiltzen zara irakaslearen aurrean".

Segida eman zion Mendiluzek, azkar batean: "Irakaslea izan nuen bai, ta ze irakaspen mota. Oraindik ere gogoan daukat jarri zidan azken nota. Dana ez det noski esplikatu, bera aurrean



Jantokia bete egin zen, beste urte batez, bertso afarirako. AIURRI

dago-ta. Baina ni ez banaiz formal-formala, errua berari bota". Lizasok, orduan, alperretik bazuela bota zion irakasleari: "Holakoetan normala degu, errua bota elkarri. Oroitzapenak berriz burura, etorri ohi dira sarri. Ta Josuk ere alperretikan badu nahiko lokarri. Kantujirako soinujo-leak soinurik ez du ekarri". Mendiluzek kontrapuntua ipini zion Lizasori: "Beraz soinurik ez dakarrela, hala dezu nabarmendu. Baina berdin da bere parean jarrita nola gauden gu. Afari osoan jardun da eta, ez diot bistarik kendu. Soinuak ekartzen ez badu ere, hotsa beti egiten du".

Ondokoari zuzendu zitzaizkion hurrengo bertsoak. Lizasok eza-guna baitu Lourdes Arteaga: "Parean dagonari utzita, tentatu nahi aldamena. Sekretaria guk ez dugula hori gauza nabarmena. Ibiltzen dena Andoain eta Zaldibitikan barrena. Antiguokoa izanagatik, beti modan dagoena". Errematea Mendiluzek eman zion, mahaikideen algara artean: "Pentsazue ze pertsonaje, pentsazue ze kasu. Dirudenez oso bizitza nekeza baitaramazu. Zaldibin jefa, hemen ibili, ta Antiguokoa zera zu. Markel Olanok baino eremu zabalagoa daukazu".

Ernaitza

liburudenda

Eguberritako eskaintza bikaina

Gurean topatuko dituzu:

- Durangon aurkezten diren nobedadeak.
- Kultura bonoaren onurak.
- Joku, jolas eta opari gaiak.

Zumea, 9. Andoain. 943 592 459

ernaitza@yahoo.com

